

AUTISMOAREN ESPEKTROKO

NI
RE

LAGUNAK

AEN

DAU
KA

GALDEREN ERANTZUNAK, AEN DUTEN UMEEN

LAGUNENTZAT.

NAHASMENDUARI BURUZKO

ZER DA AEN?

AEN = Autismoaren Espektroko Na-
hasmendua

Autismoak 100 pertsonatik bati era-
giten dio.

Pertsona guztiak desberdinak gara,
eta, AEN duten pertsonak, ere bai.
Hala ere, badira ezaugarri komun
batzuk; adibidez, ez dituzte berdin
erakusten euren emozioak, eta
zailtasunak dituzte beste pertsona
batzuek pentsatzen edo sentitzen
dutena ulertzeko.

AEN duten pertsonak inguratzen
duten mundua ikusteko, entzuteko
edo hautemateko modu desberdin
bat izan dezakete, eta, batzuetan,
zaila egiten zaie aldaketen aurrean
malguak izatea.

Oso ondo egin ditzakete gauza
asko. Ezagutza eta ideia harrigarriak
dituzte.


SENDATUKO DA?

Zure laguna ez da sendatuko, ez dagoelako
gaixorik. Besterik gabe, jakin behar duzu zure
laguna desberdina dela, eta desberdintasun
horiek onartu behar dituzu.

Beste haur batzuek bezala, gauza berri asko
ikasiko ditu bere hazkuntza-prozesuan.

Zorionez, paregabeak gara denok;
horregatik, ikasgelan giro ona sortzeko
modurik onena elkar ezagutzea eta
errespetatzea da.

Ez izan beldurrik irakasleari AEN duen
ikaskideari buruz galdetzeko, eta lagundu
gainerako haurrei autismoari buruz ikasten.



NOLA IZAN NAITEKE LAGUN ONA?

Zure beste lagunei bezala, zurekin jolastea gustatzen zaio, baina baliteke berarentzat zailagoa izatea jokoaren arauak ulertzea edo betetzea. Beraz, izan pazientzia eta emaiozu denbora nola jokatzen den uler dezan.

Errazago zaio jokoarekin bat egitea jarduera ezagutzen badu eta bere interesekoa bada. Jolasten ari zaretenean, saiatu malgua izaten, beharbada, beti joko berean aritu nahiko baitu edo berdin jokatu nahiko baitu.

Pixkanaka, denok bezala ikasiko du, eta gehiago eta hobeto jolastu ahal izango duzue.

Seguru une zoriontsu asko partekatuko dituzuela elkarrekin!

NIREKIN JOLASTU NAHI DU?

Noski!
Atsegin du jolastea
eta barre egitea.
Nola jokatu erakuts
diezaiokezu, zer egin
behar duen azalduz.

NOLA HITZ EGIN DIEZAIOKET?

Erabili esaldi
laburrak, hitz sinpleak
eta keinuak (adibidez,
seinalatu hatzarekin).
Horrez gain, marrazkiak
egin edo irudiak erabil
ditzakezu, hobeto uler
diezazun.

NOLA EGINGO DUT?

Hobe da esaerarik, hitz-jokorik, esanahi bikoitzeko esaldirik, metaforarik edo sarkasmorik ez erabiltzea. Oro har, AEN duten pertsoneri kostatzen zaie hizkuntzaren ñabardura batzuk ulertzea.

Era oso berezian hautematen dituzte eguneroko soinuak, argiak, usainak, zaporeak edo testurak. Inguruko estimulu batzuekiko sentikorrak izan daitezke, eta desatseginak edo mingarriak ere izan daitezke beraiarentzat. Ondorioz, beste pertsona batzuentzat ezohikoak diren jokabideak izan ditzakete (belarriak tapatzea, etengabe mugitzea, iskanbilatik aldentzea, etab.), baina ez dira ez apetatsuak, ez asmo txarrekoak.

Oso garrantzitsua da haien espazioa eta erritmoa errespetatzea.

ASKO IKAS DEZAKEZU ZURE LAGUNAREN GANDIK

Munduarekin erlazionatzeko duen moduak harremanak izateko eta mundua ikusteko beste modu bat ikasteko aukera ematen digu.

Oso gutxitan esaten dute gezurra.

Unea bizi dute.

Ez dituzte besteak epaitzen.

Grinatsuak dira.

Ez daude gizartearen itxaropenen mende.

Egunero gaintitzen dituzte erronkak.

Zintzoak eta egiazaleak dira.

AEN duten pertsonak ate berriak ireki diezazkigukete neurotipikooi (AEN ez duten pertsonoi).

GAINDITZEA ERRESPETUA LAGUNTASUNA IRMOTASUNA

AUKERA PAREGABEA

Guraso horiek: zuen seme-alabek AEN duen ikaskide bat badute, baliatu aukera paregabe hau. AEN duen lagun bat izateak pertsona hobea izaten lagunduko dio; solidarioagoa eta sentikorragoa izango da, eta bizitzan benetan garrantzitsuak diren gauzak baloratzen ikasiko du.

Ikasgelako egunerokotasuna bidaiara zoragarri bat izan daiteke; denok ikas dezakegu guztiengandik, eta elkarri lagundu diezaikegu. Pertsona azkarrenak gauza gehiago ikusten lagunduko digu; motelenak, berriz, hobeto ikusten lagunduko digu.



GAUTENA
Gipuzkoako Autismo Elkartea
Asociación Guipuzcoana de Autismo

Francisco López Alen, 4
20009 Donostia - San Sebastián
T. 943 21 53 44
E. info@gautena.org
W. gautena.org